

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko irailaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Lamixine taldeak antolatuta, Antzerkia, hizkuntza, arte diziplinak eta ingurunea jorratzen ari dira ikastaro batean

Asier Larretxea • «Hitzak irteten zaizkidan bezala idazten ditut»



Golf zelaiak Ebroren ibaibazterrean

Golfa duela bost bat mende sortu zuten, Eskozian, euriaren hezea eta belarraren berdea lagun. Golfak belardi zabalak behar ditu, eta horretarako ura behar da. Akaso horregatik izanen zen orain arte golfa kirol elitista, ura baliabide garestia delako alegia; guti batzuek jokatzeko zuten eta golf klubak pribatuak ziren. Bada, orain Tuteran eta Mendabian, berdearen ordezkia horia eta marroia nagusi diren Ebroren ibaibazterrean, golf zelai bana sortu nahi dute. Are gehiago, golf zelaiak publikoak izanen dira. To!



Zizur Nagusia - Murillo el Fruto ●

Lasterka egiteko aukera

Herrietako bestetan mota askotako ekitaldiak izaten dira, gehienak arimaren gozamenerako baina gorputzaren kalterako. Alta bada, Zizur Nagusian eta Murillo el Fruton kros bana antolatu dute.



Murillo el Frutoko iazko Santa Ursula krosa. ● EGUNKARIA

FESTA AURREKO EKITALDIEN barruan, bihar, larunbata-ekin, III. Hiri Milia jokatu-ko da Zizur Nagusian. Ardoi klubak bederatzi kategoria egin ditu biharko probarako. Ttikienak, lau urtetik beheitikoak, 19:00etan aterako dira eta 100 metro egin beharko dituzte. Minutuak pasatu ahala, Idoia parkeko irteeratik aterako direnen adina handituz joanen da, baita

egin beharreko metro kopurua ere. Milia (1.609) azken hiru kategoriakoek korritu beharko dute. Bertakoen milia 19:35ean hasiko da; milia herrikoia hamar, minutu geroago, eta gon-

bidaturiko lasterkarien milia, 20:00etan. Kategoria guziak mistoak dira, azkenekoa izan ezik.

Izena kategoria bakoitzeko lasterketa hasi baino hamar mi-

nutu lehenago ematen ahal da. Izena ematea dohainik da. Proba guzietako lehen hiru gizon eta emakumeek garaikur bana jasoko dute. Beste guzietatik oroi-garria eramanen dute etxera.

Murillon, Santa Ursula krosa

Murillo el Fruto herriko besten barruan Santa Ursula krosa jokatu dute igandean. XVI. aldia izanen da. Ttikienak goizeko hamarretan aterako dira, eta zaharrenak, ordubete geroago. Irabazleei emanen zaizkien garaikurrez landara, zaharrenen lasterketa bukatzen duten guzietatik elastikoa eta pasta kaxa bat jasoko dute. Ttikienek dominak eta hainbat opari izanen dituzte. Izena ematea dohainik da eta kategoria bakoitzeko proba hasi baino ordu erdi lehenago egin daiteke. Eta dutxatu ondoren, txistor jatea eta kirol materialen zozketa.

→ Asier Azpilikueta

Lizarra ● Antzinako Musika Astea, abiatzear

Astelehenean abiatuko da 1967. urtetik Lizarran egiten den Antzinako Musika Astea. Aurten XVI. eta XVII. mendeetako doinuak entzuten dira San Miguel elizan, iluntzeko 20:00etatik aitzina. Astelehenean hasi eta ostiralera bitarte, Erdi Aroan Europan egiten ziren konposizioak ardatz izanen dira. Kontzertuetarako sarrerak 1.500 eta 2.000 pezeta bitartean jarriko dira salgai. Nafar Ateneoak Lizarrarat egunero joateko autobusak antolatu ditu (948-275302). Horietan izena emateko, gaur da azken eguna, eta autobusak 19:00etan abiatuko dira, Tres Reyes hotelatik.

El Cortesano taldeak hasiko ditu aurtengo musika emanaldiak, Garcilaso de la Vegari omenaldia egitea xede duen kontzertuarekin hain zuzen ere. Asteartean, The Kinges Consort taldea ariko da. Robert King zuzendari dela, bost kidek osatzen dute talde hori. Biolinekin eta biolontxeloekin, barrokoko konposizioak joko dituzte, Carolyn Sampson sopranoarekin.

Irailaren 12an Labyrinto taldeak parte hartuko du. Marin Marain, Francois Couperin eta Robert Visee konpositore frantziarren lanak joko dituzte. Mala Punic taldea ostegunean ariko da, eta Paolo de Firenzeren obrekin osaturiko programa eskainiko du. Azkenik, gaur zortzi, Andrew Manze biolin jolea izanen da Lizarran. Antzinako musikaren esparruan lehen mailako musikaria da Manze.

→ Kristina Berasain

Lekunberri.

Kirol eskaintza zabala

UDA AMAITZEAR DAGOELARIK, UDAZKENA GOGOTSU hasteko parada izanen da Lekunberri, Larraunen eta Araitz-Betelun neguko kirol eskaintza berriaren eskutik. Joan den astelehenean hil honen 21a bitartean, haurrek, helduek nahiz zaharrek izena eman ahal izanen dute antolaturiko ikastaroetan. Aurten, gainera, berrikuntzaz beteriko egitaraua prestatu du Mikel Lizarraga kirol teknikariak.

Lehendabiziko aldiz, Lekunberriko, Larraun eta Araitz-Beteluko bizilagunek

triptiko bat eta matrikulazio orri bat jasoko dute etxean, antolaturiko kirol ikastaroen berri izateko. «Orain arte, kartelak jartzen ibili behar izaten genuen. Aurten, berriz, jende guziak informazioa jasoko du, eta parte-hartzea handiagoa izatea espero dugun», adierazi du Lizarragak.

Hiru eta hamasei urte bitarteko haurreak iaz baino aukera zabalagoa izanen dute kirolaz gozatzeko. Izan ere, igeriketa eskola sortu dute Plazaolako igerilekuan, eta, pilotari bultzada emateko, paleta eta frontenis

ikastaroak antolatu dituzte. Umeez, gainera, diru laguntzak jaso ditzakete ikastaro motaren arabera.

Helduek, besteak beste, eskalada, tai-chi eta atletismo lasterketak prestatzeko ikastaroetan esku har dezakete. Honetaz guztiaz gain, kirol eskoletan arituko diren 9 begiraleek prestakuntza berezia jasoko dute.

Izen-emateak eta informazio gehiago, Larraun eta Beteluko kirol bulegoetan.

→ Estibalitz Ortega

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Albertorekin topo egin nuen lehengoan, Txantrea doan billabesaren atzealdean. Neska-laguna zuen alboan. Elkarri korapilatutako eskuak askatu zituztenean jabetu nintzen berarekin zegoena Sofia zela, Madril en ezagutu zuen adineko emakume lirain eta gaztea; zahartu ere ardoaren dotoreziaz zahartu den emakumea, goxo eta ospindu gabe. Alberto ere ez da gehiegi aldatu: lodia, burusoila, ezatsegina, frankismo garaiko betaurreko handien eramaile txikia. Berrikuntza bakarrak imitaziozko sandalia garaikideak, eta short irrigarri batzuk belauetik gora. Izatezko bikote dira Sofia eta Alberto, ballet dantzari ohia bata, sotana utzi ez duen fraidea bestea.

Egun, benetan harriztekoa kulturik ez duen fraidea da.

Alberto eta Sofia

Hala ere, ez dago larrizteko motiborik. Sofiak ez du Maria Sangen gose huelga jarraitu beharrik izanen. Alberto ez da Zambiano apezpikua, ez du Milingoren bidea hartuko. Eguneroko utzikeriari eutsiko dio, plater bete garbantzua eta bildots saiheutsak ongi garbitzen, elizaren kontura eta mahaia sekula bedeinkatu gabe. Goizez meza ematen, gauetz Sofiaren belarrira hitz goxoak kantatzen, hitz sakratua lizun bihurtzen.

Sofiak, bestetik, kristau eta fededun zintzoa izanagatik ere, ezin izanen du sekula ikastetxe publikoren batean erlijio irakasle jardun, baduelako izan elizan hasi eta epaitegietan bukatu zuen historia ilunagoa. Ezkontzako apaizari jaramonik ez egin eta Albertoren aldarera jo zuen bedeinkazio bila.

Eta pozik bizi dira Alberto zein Sofia. Elkarrengandik urruti neguan (Caracasen Alberto, Madril en Sofia) eta udarran ohe berean, elkarrekin oporretan, Iruñean. Billabesan zer kontatu jakin ez, eta zirikatze sikierra, **Andrearen** gaia aipatu nion fraideari, biharamuneko pilula saltzeagatik ireki dioten espedientearen berri. Bereak eta bi erantzun zizkidan, abortua, galdutako ardi lotsagabeak, hilketa, infernua... Ahopeka eta irrika ere aitortu zidan aurki zein berandu guziok elkar ikusiko dugula infernuan. Batzuei buruz, behintzat, zalantza izpirik ez dut. Vatikanorari so egitea, Gescartera auziaz solastatzea besterik ez dago. Pobrezia bada haien artean ikusten duguna, non egonen dira kastitatea eta zelibatua?

Bera ● Sormenaren baratzea

Antzerkia, hizkuntza, arte diziplinak eta ingurunea jorratzen ari dira ikastaro batean



Antzerkia, hizkuntza, arte diziplinak eta ingurunea jorratzen ari dira egunotan ikastaro batean Beran. ● OSKAR MONTERO

Lamixine BAT taldeak antolatua, sormena lantzeko ikastaroa egiten ari da 14 laguneko talde bat, Berako Kultur Etxean. Arte adierazpideak, hizkuntza gutituak eta kulturak uztartzen ditu egitasmoak.

HAINBAT ARTE ADIERAZPIDE eta diziplina erabiliz, inguruari berebiziko garrantzia emanik, sormena lantzea proposatzen du Chrissie Poulter irlandarrak bere ikastaroan. Poulter Dublingo Unibertsitateko irakaslea da, Trinity Collegekoa. Ikastaroa egituratzeko, in-

guru hartu du abiapuntu, eta hala, Berako Kultur Etxea abiapuntu izanik ere, herriak eskaintzen dituen hainbat baliabide erabiliko dituzte sormen lan horretarako: arkitektura, paisaia, jendea eta hizkuntza... Diziplina bat baino gehiago erabili nahi izaten ditu bere lanean Chrissie

Poulterrek. «Antzerkia, pintura, musika, ... arte adierazpen ugari uztartzen ditut, guztien arteko osagarritasuna bilatzen dut», esan dio NAFARKARIARI.

Sei herri, sei talde

Ikastaroa egitasmo zabalago baten abiapuntua baino ez da.

Berako herriaz gain, elkarrekin lanean dabilta Kataluniako Torroella de Montgrís, Ipar Irlandako Derry eta Enniskillen eta Irlandako Errepublikako Dunchaoin eta Cabinteely hirietako artistak eta taldeak.

Urte hasieraz gerotik, Irlandan dabilta lanean herrialde bakoitzeko artista bana. «Herriekin lan egitea interesatzen zait, eta lan horretan etengabe ari da artista bakoitza bere herriaz solasean, bere herria ezagutzera ematen», erran du.

Antzerkigile eta koreografo talde horrek gai eta ideia nagusi batzuk landu ditu, eta orain herri bakoitzeko gazte talde batek antzerki lan bat prestatuko du. Beran, Lamixine BAT taldeak gidatuko du lan hori, Antzeko Parezido gaztetxoaren lantegiaren bidez. Horretan emanen dute hastear den ikasturtea. Lehengo, ordea, eta irailaren 26a Europako Hizkuntza Gutituen Eguna dela aitzakia hartuta ospakizun bat prestatuko du talde bakoitzak bere herrian, bertze herrialdeetako, herrietako eta kulturetako osagaiekin. «Batzuek dantza erabiliko dute, musika, ohiturak, mitologia, sukaldaritza... edo horien guztien uztartetarekin proiektuaren hasiera ospatuko dute, egun seinatatu batean, euren hizkuntzan bizi daitezten».

Egitasmoan, bada, euskara, katalana eta gaelikoa izanen dira hizkuntza nagusiak, baina baita gaztelania eta ingelesa ere.

→ Jon Abril

Chrissie Poulter ● ANTZERKI IRAKASLE ETA ZUZENDARIA

«Norberaren hizkuntzaren garrantzia azpimarratu nahi dut»

TRINITY COLLEGE DUBLINGO UNIBERTSITATEKO antzerki irakaslea da Chrissie Poulter, eta Artslab antzerki laborategiko zuzendaria. Antzerkia karrera da Irlandako Unibertsitatean.

■ **Profesionalekin zein herritar xehekin hainbat arte diziplina jorratzen dituzu. Zein emaitza eman dizu?**

Hagitz lan polita eta aberasgarria da. Bi aldetan egiten dut lan: unibertsitateko lana dago batetik, eta bertetik, Artslab antzerki laborategiko lana. Biak uztartzea gustatzen zait. Auzo bateko ehun bizilagun, margola-

riak, opera musikariak, aktore profesionalak, dantzariak... uztartzen ditut proiektu bakarrean, antzerkiaren inguruan.

■ **Beran egiten ari zareten ikastaroan zein helburu dituzu?**

Talde berriekin aritza gustatzen zait, gauza berriak aurkitzeko. Hemengo bizi-modua izugarri gustatzen zait. Lehenagotik bi aldiz izana nintzen, joan den urteko bestetan, eta izugarri gustatzen zait Berako



mugimendu kulturala. Irlandan ez dago horrelakorik. Hemen jende gaztea herrian gelditzen da bizitzeko. Irlandan denak hirira doaz. Bere inguruak duen garrantzia ikusarazi nahi diet.

■ **Proiektu zabalago baten hasiera da, hala ere. Hizkuntzak leku berezia du, ezta?**

Guztietan hizkuntza gutiagotua daude, nahiz eta Irlandan nahikoa baztertuta duden gaelikoa. Egoera hobea da Euskal Herrian, eta are hobea Katalunian. Norberaren hizkuntzak duen garrantzia erakutsi nahi diet gazteei egitasmo honekin.



Xabier Larraburu

Talko hautsak

Neguan izan zen. Bezperako gauetan botatako elurra dena estaltzen zuen, eta goizeko ordu horietan kotxeak mantso-mantso zebiltzan lru-eko kaleetatik. Horrelako goizetan niri asko gustatzen zait kalea lehenbailehen jaitea eta trafikoaren geldotasuna, aldapa batzuetan ezintasuna dena, ikustea. Kristorena gozatzen dut. Egun bakar batez eta ordu gutxi batzuenatik bada ere, hiria isilik iratzartza behartuta dago, eta kotxeen abiaduraren alde paratutako gauza guztiek huts egiten dute, hala nola laugarren martxak eta mitxelinek gurpil hiperbizarrek. Goiz hartan ere zazpietarako kalean nengoen. Dena elurraren pean ezkutaturik zegoen, bai lorategiak, bai espaloiak, bai asfaltoa bera; gauzak horrela, oinezkoek egindako bideak argi eta garbi nabarmentzen ziren hauts zuri haren erdian. Eta (atentzioa eman zidan) ezkutaturiko bide hiritar arruntak, espaloi, zebra bide eta gainerakoek oso gutxitan egiten zuten bat oinezkoek goizalde hartan marraztutakoekin. Kuriosoa zen, baina zebra bideek zuri segitzen zuten, eta, aldiz, inongo zebra biderik ez zegoen lekua aukeratua zuten oinezko guztiek pasabide erosoena bezala. (Orduan ulertu nuen, esate baterako, zer dela eta aste oro konpondu behar duten bi karrilak bereizten dituen landarezko hesia). Seinale hirigileek gure eguneroko eta zentzuzko bideekin ez dutela inondik inora asmatzen. Zentzuzko bideak goiz bakar hartan, sikiera, argi eta garbi marraztuak agertzen ziren. Lehengo egunean honekin oroitzen nintzen Takoneran morroi bitxi baten jardunak ikusi nituenean. Landareen hesian talko hautsak nola botatzen ari zen. Gerturatu nintzeneko, hesian, hutsetik sortuak, armiarma sare distiratsuak agertzen hasi zirela ikusi ahal izan nuen. Morroiak hauts zuria botatzen segitu zuen, eta handik minutu batera, hogeita hamasei bat armiarma sare zeuden begien bistara. Morroiak orduan sareak zenbatu, bere koadernotxoan datu batzuk idatzi eta alde egin zuen. «Horra!», pentsatu nuen armiarma sare haiei begira, «elurra egin zuteneko goiz hartan bezalaxe. Hauts zuriaren pean begien bistara agertzen dira bideak». Sikiera elur egunetan hirigileek datuak hartuko balituzte! ●

Green eskaseko golf zelaiak

Tuteran eta Mendabian golf zelai publikoak sortzeko proiektuak abiatu dituzte udalek

Han eta hemen, golf zelai publikoak sortu nahi ditu Nafarroako Gobernuak. Turismoa erakartzeko modu ona izan daitekeela uste baitu. Eta proposamena egin die udal guziei. Oraingoan, Ebro ibaiaren bazterreko bi herri agertu dute interes gehien. Tuteran eta Mendabian golf zelaiak sortzeko tramiteak arindu dituzte, eta baliteke 2003. urtearen hasieran golf zelaiak martxan izatea.



Golf zelai publikoaren lasterketa Tuteran da lehena. Irudian zelaiak egiteko erabiliko duten lurra erakusten da. ● JOXE LACALLE

GOLFAK, PILOTA TTIKI BAT MAKILAZ JO ETA zelai batean dauden zuloetan sartzean datzan kirolak, berdea behar du, belarraren berdea (green). Eta horregatik, harrigarri egiten da Tuteran eta Mendabian golf zelaiak egin nahi dituztela entzutea. Are gehiago: golfa betidanik kirol elitista izan da, golfaren aritzeko dirutza ordaindu behar zen... Bada, orain, golf zelai merkeak egin nahi dituzte, prezio apalekin. Bi aldiz harrigarri. Nafarroan, egun, hiru golf zelai daude, hirurak pribatuak: Ultzama, Gorraitz eta


Golfaren aritzeko dirutza ordaindu behar zen. Bada, orain, golf zelai merkeak egin nahi dituzte, prezio apalekin

Zuasti. Gobernuak Turismo arduradunen aburuz, turistek ez dituzte zelai hauek erabiltzen, garestiak direlako. Turismo arduradunek beste faktore bat ere baliatzen dute: geroz eta ohikoagoa da oporraldia udaleku bakarrean igaro ordez, azkeneko astea hurbileko tokiren batean igarotzeko gordetzea. Hurbiletik datorren turista horri zerbait eskaini behar zaio Nafarroan ahalik eta denbora gehien eman dezan, bai eta ahalik eta diru gehien gasta dezan ere. Zelai pribatuak prezioak 7.000 eta 10.000 pezeta

arteak dira. Publikoetan, 3.500 pezeta ingurukoak.

Zelaien finantzaketa, erdi bana
Turismo Zuzendaritza Nagusiak informazio jardunaldia egin zuen 2000ko otsailaren 20an. Turismoko Zuzendaritza Nagusiak informazio jardunaldia egin zuen 2000ko otsailaren 20an. Turismoko Zuzendaritza Nagusiak informazio jardunaldia egin zuen 2000ko otsailaren 20an.


zuten; hala nola, Fitero, Tuteran, Arguedas, Larraga, Villatuerta eta Mendabiako udalek. Golf zelaiak sortzeko ekimena udalek hartu beharko dute, Nafarroako Gobernuak aholku eta laguntza teknikoak eskainiko die, eta eginiko inbertsioaren %50 emanen du, gehienez. Interesa agertu eta gero, azterketak egin behar dira, proiektua ekonomikoki bideragarria denetz jakiteko. Era berean, ikusi beharko da alde horretan golf zelaiak mantentzeko adina ur ba ote dagoen. Turismo zuzendari nagusi Javier Taber-



Golfaren Gorraitzen, Iruñea ondoko klubean. ● OSKAR MONTERO

Turismo produktu berriak

NAFARROAKO GOBERNUAK TURISMO PRODUKTU BERRIAK SORTU NAHI ditu. Helburua: bisitatzen gaituzten turistak Nafarroan egun gehiago pasatzea eta diru gehiago gastatzea. Batez beste, turista batek 8.500 pezeta gastatzen ditu egunero Nafarroan. Turismoko zuzendari nagusi Javier Tabernak erran duenez, Nafarroak ondarsun historiko eta kulturalak ditu asko, baita natur baliabideak ere; baina turistaren bisita lutzatzen eta eguneroko gastua handitzen laguntzen ahal duten turismo produktuen gabezia ere bada. Horregatik, Arguedasen animalien parkea egin nahi dute; Astitzen Metrokilloko kobazuloa atontzen ari dira; Elgorriagan, Bete-lun eta Belaskoainan bainu etxe publikoak zabaldu nahi dituzte; Belaguan eskiatzeko gunea sortzeko asmoa dute; eta golf zelai publikoak nonahi eraiki nahi dituzte. Nafarroako Gobernuak azken honetan indar handia egin du, bere iritziz, golfak aurrerakada handia izan baitu azken urteetan, eta aurreko garaietako izaera elitista galdu.



Mendabian los Valles izeneko lursaila golf zelaiak. ● JOXE LACALLE

Samuel Caro ● MENDABIako ALKATEA

«Edozein pertsonak golfean aritzeko aukera izatea nahi dugu»

Nafarroako Gobernuari gustatuko litzaioke merindade bakoitzean golf zelai publiko bat izatea. Lizarrako merindadean Mendabia da aukera gehien dituen hautagaia. Samuel Caro, Mendabiako alkate gazteak, golf zelai publiko nahi du, mundu guziari irekia.

■ Aski diru bada Mendabiako golf zelaiak egiteko?

Hasiera batean, 60 milioi pezetako inbertsioa egitea espero zen, eta milioi horien erdia ordaindu behar zuen Udalak. Orduan pentsatu genuen 30 milioiko inbertsioa egitea merezi zuela. Baina, gerora, inbertsioa diru kopurua izugarri handitu zen, ia 300 milioitara. Mendabiak ezin zuen hori ordaindu, eta ezetz erran genuen. Baina azken bilera beste modu batean esplikatu ziguten. Kontua da proiektua erdi bana ordaindu behar dutela Udalak eta Gobernuak, baina Udalaren erdia, berez, ekimen pribatuak ordaintzen du. Hortaz, enpresa batek egin beharko du 150 milioi horietako inbertsioa, eta Udalak zelaiak kudeatzeko hitzarmena sinatuko du berarekin. Horrela, inbertsioa dirua berreskuratzen ahal du enpresak.

■ Hortaz, Udalak lur sail hori utziko lioke enpresa horri?

Bai, lur saila eta zelaiaren kudeaketa uzten zaio. Sistema honekin, udalek egin beharreko inbertsioa ttikia da oso. Udala proiektuaren zaindari bilakatzen da. Udalak kontrolatu behar du golf zelaiak kudeatzen duen enpresak

prezio merkeak jartzen ote dituen. Era berean, hitzarmena sinatzen ahal da golf eskola sortzeko. Gure asmoa da edozein pertsonak jokatu ahal izatea golfean. Hori bategatik; eta bestetik, interesatzen zaigu herriaren irudi ona ematea. Golf zelai batek halako irudi ona eman dezake. Mendabia esparrago eta piperrei esker saltzen dugu, baina beste zer edo zer behar dugu. Golf zelaiak turista gehiago erakarriko litzuzke, eta hori guzuzen onurarako litzuzteke.

■ Zein fasetan dago proiektua?

Abuztua baino lehen agindu genuen bideragarritasun azterketa lehenbailehen jasotzea espero dugu. Eta lehenbailehen aurkeztuko diogu Komertzio eta Turismo Sailari. Eta Gobernuak erranen du ea Mendabia hautagai ona denetz. Guk interesa dugu, uste dugulako gauza ona dela Mendabiarentzako. Ikusi beharko da ea teknikoek egokitzat jotzen duten gure proiektua.

■ Azertu beharreko faktore bat uraren kontu da. Nahiko ur du Mendabiako golf zelaiak egiteko?

Hori da gauditu behar dugun arazoetako bat. Uste dugu ura badugula, baina hori teknikoek erran behar dute. Eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak utzi behar digu ura erabiltzen golf zelaiak ureztatzeko. Nafarroako Gobernuak eskaera egiteko tramiteak arindu beharko ditu, bestela asko atzeratuko da proiektua, zelaiak sortzea ura izatearen araberako baita.

«Batetik, gure asmoa da edozein pertsonak jokatu ahal izatea golfean. Bestetik, herriaren irudi ona eman dezake»

naren iritziz, golf zelai hauek ez dira hagitz handiak izanen, baina tamaina egokia izanen dute, edozein zale asetzeko adina. Tabernaren kalkuluen arabera, lehenbiziko instalazioak heldu den urte bukaeran edo 2003ko hasieran egoten ahal dira martxan. «Nafarroak ezin du golf zelaiak sortzeko aukera galdu, lur saila eta ur ugari baitu; eta, gainera, goraka doan kirola da». Nafarroako Golf Federazioak 2.700 lizentzia ditu.

Tutera aurreratuena

Golf zelai publikoaren lasterketa honetan, Tutera da lehena, Erriberako hiriburua. Duela gutxi, Cierzo mendilerroko lur sailak berriz kalifikatzeko proiektua idatzi behar dela onartu du Udalak. Golf zelaiak eta 300 bat etxebizitzako gunea eraikitzeko kalifikatuko dituzte. Lur sailak egun komunalak dira, eta bertan laboreak landatzen dituzte batez ere, baina ura haraino eramateko aukera dago. Golf zelaiak 70 hektarea hartuko litzuzke, eta etxebizitzek, 34 hektarea.

Udalak lur sailen kalifikazio berria onartu eta gero, lehiaketa bidez, golf zelaiak egiteko salduko dizkio enpresa eraikitzaile bati; baina, era berean, etxebizitzak egiteko lur sailak doan emanen dizkio. Enpresak, gero, golf zelaiak itzuliko du Udalarena izan dadin. Honela bada, Udalak golf zelaiak izanen du lur sailak berriz kalifikatzearen truke. Hasiera batean, uste dute horrek guzuzi 1.100 milioi pezetako kostua izanen duela. Golf zelaiak hamazortzi zulo izanen ditu.

Mendabian proiektuarekin segitzen dute

Javier Tabernak aurtengo ekainean Arguedas, Larraga, Fitero eta Mendabiako udalako ordezkariekin bilera egin zuen. Horren ondoren, Mendabia izan zen golf zelaiak sortzeko asmo irmoa erakutsi zuen bakarra. Villatuertako Udalak ere bazuen golf zelaiak egiteko asmoa, baina ikusi zuenean aurreproiektuak 300 milioi pezetako inbertsioa jasotzen zuela, atzera egin zuen. Gainera, Villatuertako alkateak zioenez, «herriaren gehiengo ez da proiektuaren aldekoa».

Mendabian proiektuarekin aitzina segitzen dute. Bideragarritasun estudioa egiten ari dira orain. Udalak Los Valles izeneko lur sailaren dituen 200 hektareatik, bederatzi zuloako golf zelaiak egiteko izanen dira 30. Gainerako hektareetan ikasketak kantxa eta hotela edo klub-etxea eraikiko dute. Etxeak 800 metro koadro izanen litzuzke: harre-gela, egongela, hamar logela, kafetegia, sukalde, bildegia, denda eta bainugelak.

Mendabiako alkate Samuel Caro aipatu duenez, hasieran, golf zelaiarekin entzun zuenean arraro samarra iruditu zitzaion. «Izan ere, oso zabaldua dago golfa kirol garestia delako ideia. Baina bilera egin ahala ikusi genuen bazegoela alternatibarik golfa kirol herrikoia bilakatzeke, prezio apalagoko golf zelai publikoak eginez».

Golf zelai publikoaren lasterketa honetan, Tutera da lehena, Erriberako hiriburua

Asier Azpilikueta

Galdezka neure buruari

Politikoez. Asmatuko du **Pedro Pejenaute** mandatugile erregionalistak izenean TX, TS, TZ edo eta K duten enpresen gaineko zerga? **Juan Jose Lizarbe** estadista sozialistak *Nola izan oposizioko buru oposiziorik egin gabe* —izenburua ez da hitzez hitz hori, baina izan beharko luke— liburuaren zenbat ale salduko ditu? Inork ohartaraziko al du **Fernando Barrena** ile apaindegi aldaketa egin beharko lukeela? Eta **Begoña Errazti**? Inor oroituko ote da **Juan Cruz Alliekin** —foru lehendakari izandako betaurrekodun hura. Tarteka txapela janzten zuen hura—? Segituko du **Felix Tabernak** mundu mundialeko politikorik tristeena izaten —beti ere, **Javier Madrazorekin** lehia bizian—? Hautsiko ditu —berriz— **Milagros Rubiok** xalotasun marka guztiak? Surtuko du **Patxi Zabaletak** iritzi korronte kritikorik Aralar iritzi korronte kritiko ohiaren baitan?

Neure buruaz. Astelehenean, ikasturte politikoa abian jarri zen horretan, bazkalondoan, Monte Carlo barran eserita, gina eskuan, egunkariak aurrez aurre, aurreko paragrafoko galdera horiek guztiak egiten ahal nizkion neure buruari. Haatik, ez nizkion egin. Ginari zurrutada etsia ebatsi eta gero egin itauna metafisikoagoa izan zen: «Nola izaten ahal zara horren tontoa?». Izan ere, ikasturte politikoa berriari buruzko aurreikuspenez josiriko eguneko egunkariekin batera, aste-



Juan Jose Lizarbe, PSNkoa, bi urteko oposizio arduratsua gidaria.



EGUNKARIA eta beste egunkariak, kioskoan.

lehen arratsaldean joan den asteko NAFARKARIA eskuratu nuen —Zarautzen ez nuen NAFARKARIA dun EGUNKARIARik erosterik, eta Samuelek, Monte Carloko jabeak, bat gorde zidan—, eta NAFARKARIA hori irakurrita, galdera hori besterik ezin nion egin neure buruari. Gogoratuko denez —eta gogoratzen ez duenari jarraian gogoraraziko diot—, joan den astean *Tonto aurpegia* izenburua jarri nion neure zutabe honi. Idazkia hornitzen duten argazkiak, ohi-turari jarraiki, telefonoz lotu nituen argitalpen honetako koordinatzaile **Asier Azpilikueta**rekin —mutil jatorra, langile fina, Tetris jokalarikaskarra—. Eta lotura egiterakoan, ez nin-

tzen oroitu izenburuaz. Hartara, agintzen nuenaz jabetu gabe agindu nuen **Pablo Antoñana** idazle zorrotz eta handiaren argazkia jartzea *Tonto aurpegia* zioen lerroburuaren azpian. *Mea culpa*.

Bainujantziaz. Kontua da, ginari zurrutada etsia eman eta neure buruari ahapeka «nola izaten ahal zara horren tontoa?» galdetu niola. Barraren atzean eman dituen 30 urteek Samuel hoztu egin dute, ia izoztu. Edozein bezeroren ahotik edozer arazo entzuteko prest dago. Baina besterik ez. Sekula ez du sostengu adierazpenik egiten. Horregatik harritu ninduen, ohiko hoztasun

profesionala bazterrean utzita, ahots epelez, kasik beroz, esan zidanak. «Guztiok sartzen dugu hanka. Ez larritu». Aho bete hortz, ez nion erantzun. Hartara, segitu zuen: «Garrantzitsuena da egindako hutsaz jabetu zarela. Jabetu zarela argaltzearen gina edatea tontakeria dela, kubalibreak ez duela horrenbeste gizentzen». Jarraian, kubalibrea jarri zidan. Beti bezala, gina baino bi aldiz garestiago. Caciquez eta limoi ur txorrotadaxo batez. Aspaldiko partez gozatzen ez nuen zapore zoragarria gozatzen nuen bitartean, beste galdera bat etorri zitzaidan gogora: «Sartuko al naiz datorren udan aurtengo bainujantzia?».



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Izarretan ostatu

Hiru Erregeen Mahaia igotzea baino, nahiago nuke *Hiru erregeen* lau izarretara abiatu (35.000). Nire etxe zuloko infernua atzean utzi eta, *Maisonnave* batean sarturik, unibertsoa zeharkatu (25.000). *Iruñako Park* nagusian lur hartu (25.000) eta, gero, *Ciudad de Pamplona* gertutik ikusi (15.000). *Sancho Ramirez* (20.000), *Blanca de Navarra* (25.000), *Albret* (20.000), hitz batean, *Reino de Navarra*ko sateliteak ezagutu (25.000).

Beti izan dut ilargi beteko gau bat —bat aski— bertan igarotzeko ilusioa. Ezinezkoa, ordea.

Izar kopuruaren arabera, gora edo behera egiten badute ere, prezioak astronomikoak dira. Gainera, logelako zerbitzariari 200 pezetako eskupekoa ematea aspaldiko ohitura omen da gurean. Iruñeko Hotelen Elkarteko buru Jose Luis Armendarizen ustez, «gure zerbitzua ez da

merkea, baina inon ez bezalako kalitatea eskaintzen dugu hemen».

Sanferminetan, atzerritarrak nagusi. Estatubatuarrak, bereziki.

Urte barruan, berriaz, bestelako bezeroak azaltzen dira. «Enpresa gizonak. Unibertsitate-tako irakasle, ikasle eta gurasoak. Ospitaleekin zerikusia duten gaixo, senitarteko eta medikuak. Asteburuetan jokatzeko kirol taldeak. Hainbat kongresutara etortzen diren adituak». Batez beste, bi eguneko egonaldiak egiten dituzte ostatu hartzen dutenek. Bide batez, bainugelako toailak eta zenbaitetan «maindireak ere eramaten dituzte».

2.800 lagunentzat dago tokia Iruñeko hoteletan. Jaietan bakarrik daude muku-



Tramontana eskultura, Iruña Park hotelaren ondoan.

ru beteta. «Hilabeterik txarrenak abendua, ilbeltza eta abuztua dira. Horretaz gain, egoera politikoaren ondorioz, su-etena amaitu zenetik batik bat, bisitari gutxiago etortzen da gure artera».

Beti ere, Iruñera heltzeko antolatuturik dagoen azpiegituren sarea zabala da. «Trenez. Hegazkinez. Autoz. Ongi komunikaturik gaude, oro har, beste hiri nagu-

siekin. Salbuespen bakarra dago. Frantziako beste aldearekin oso lotura txarra daukagu, eta sarritan bisitariak Gipuzkoako bidea hartzen dute».

Takoi altuak daramatzan emakume ezezaguna bezeroaren gelan sartzen denean edo baten bat neurritik gora edan eta gero azaltzen denean, Bestaldera Begiratzeko Zerbitzua eskaintzen dute. Gainera, «koxtea alokatzeko aukera, golfean jokatzeko, Iruñea gidarien bidez ezagutzeko parada eta bestelakoak ere bisitariaren esku

daude».

Azkenik, euren buruarentzat lan egiten dutenek edo dietak oso neurturik dituzten enpresetako ordezkariak, hotelen kalterako, gero eta gehiago jotzen dute ostatu merkeagoetara.

Bazkaria prestatu eta, ondoren, harrikoa egin beharko dut. Hau da miseria gorria.

Asier Larretxea  OLERKARIA

«Hitzak irteten zaizkidan bezala idazten ditut»

Asier Larretxeak, 19 urteko arraioztarrak, bere olerkiak erakutsiko ditu Elizondon. Asteburu honetan hasi eta irailaren 23a bitarte, olerkiak ikusgai eta irakurgai egonen dira, 'Zaborte-giko Poemak', Arizkunenea kultur etxeko gelan. Bihar, larunbatarekin, 19:00etatik aurrera, bere poemak errezitatuko ditu kultur etxeko ganbaran, txalapartaren soinuen eta irudien laguntzaz.



s o s l a i a

Asier Larretxea 19 urteko gaztea da. Baztango Arraioz herrian sortu zen, eta txikitatik, aitak, Patxi Larretxea txingalariak, herri kirolak erakutsi zizkion. Baina Asierrek ez zuen gustuko, eta eztabaida ugari izan ditu aitarekin aizkolaria izan nahi ez zuelako. Olerkigintzan bidea egiten ari dela ikusita, aitak ere ulertu du bere semearen nahia beste bat dela, eta hori errespetatzen du.

Zaragozan Bibliotekonomia eta Dokumentazioa ikasten hasi zen, baina ez zuen gustuko, eta orain Gizarte Lana ikasten hastea erabaki du. Momentu txarrak pasatu zituen Zaragozan, eta urte erdia eman zuen han idatzi gabe.

Bere ametsetariko bat liburua publikatzea da, baina, halere, oraingoz nahiko zaio bertze olerkarien liburuetan agertzea. Hatsa olerki bilduman ere publikatu dituzte bere lanak.

tza hartzen du. Hitzak irteten zaizkidan bezala idazten ditut, neurriak kontuan hartu gabe.

■ Beste olerkarien eragirik baduzu?

Pessoaren eragina izan dezakek erran didate, baina nik ez dut uste. Pessoa eta Ricardo Reis izugarri gustatzen zaizkit, baina nire estiloa ezberdina da. Pertsona batek baino gehiagok idatzitako poemak dirudite nireek, batzuetan melankolikoak, bertzeetan ilunak, maitasunezkoak ere bai... Ez dut gai konkreturik. Egia da ilunak eta tristeak ugariago direla, baina ez naiz horietara mugatzen. Ongi nagoenean ere idazten dut. Zer aterako zaidan jakin gabe idazten hasten naiz; berriki, 16 poema idatzi ditut gau berean. Lehenengoa, amodiozkoa; bigarrena, *punkarrada* bat; eta azkenak honela zioen: *Hamaseigarrena zara eta zaborrara botako*

zaitut... Amaieran irakurlearekin kontaktatzen, irakurlea harritzen saiatzen naiz.

■ Elizondon aurkezpen berezia egingen da...

Bai, errezitaldia prestatu dugu bihar arratsaldeko zortzietan Arizkunenea kultur etxean egiteko. Xaloa telebistakoek irudiak proiektatuko dituzte, eta bertze lagun batzuek txalaparta joko dute. Zaila da koordinatzea, baina ikuskizun berezia eta polita izanen dela uste dut. Orreaga Urroz piano joleak errezitaldiari amaiera emanen dio.

■ NAFARKARIAKO irakurleentzat olerki bat irakurriko diguzu?

NAFARKARIAK azkenean ez du Nafarroako Gobernutik diru laguntzarik jasoko, ezta?

■ Ez dut uste.

Beno ba aproposa hurrengoa dela uste dut:

Ez omen naiz Nafarroako hizkuntza Horregatik Eztarri arrotz horiek baztertu Eta erbestera ihes egingen dut Handik Emeki Nola Nire azken egunean hatsar ixila Urkatzen duten Ikusiko dut

Ez nauzulako maite ihes egingen dut beharrezko dudan maitasuna eman ez didazulako emeki laztandu muxukatu kulunkatu ez nauzulako zure titiko esnerik eman ez didazulako

Nafarroa maite al nauzu?

→ RAKEL GOÑI

ARRETXEAK MAITASUNA, AUSENTZIA eta iluneria hartu ditu abiapuntutzat olerkiak taldetan banatzeko. Garai bateko beldurrak gainditu eta Baztango jendeari bere lanaren sekretuak azaltzea erabaki du.

■ Noiz hasi zinen olerkiak idazten?

Uste dut lehiaketen bitartez izan zela. Betidanik gustuko izan dut irakurtzea, eta eskolan idazlanak egiteko agintzen zigitenean, nik gustura egiten nuen. Idaztea zaletasun bihurtu zen Haurren Nafarroako Literatur Lehiaketara aurkeztu eta hiru urtez jarraian saritua izan nintzenean. Irakasleak lehiaketan parte hartzeko eskatu zigun. Narrazio bat idatzi nuen, oso poetikoa, oso gogorra. Irakurri zuenean, irakaslea harritu zen, eta etxean ea arazorik banuen galdetu zidan. 15 urterekin horrelako pentsamenduak nondik ateratzen nituen jakin nahi zuten. Istorioan neska bat bor txatzen zuen itzalari buruz hitz egiten nuen. Lehendabiziko pertsonan, neskak zituen sentimenduak agerian jarri. Adinaren gauza izan zen. Nire mundua eraiki nuen, ez nintzen beste haurrekin futbolearen aritzen, nahiago nuen idazten ari. Barnean nuen korapiloa nolabait askatu behar nuen, eta idaztea irteera bat zen. Garai hartan ha-

laber konturatu nintzen neure burua zentsuratzen nuela. Norbaitek irakurriko zuen beldurrez idazten nuen. Gaur egun, ordea, inongo lotsarik gabe, barnetik ateratzen zaidana idazten dut.

■ Zer izan zen zuretzat Donezteben egindako lehen erakusketa?

Irekiera bat izan zen. Jendea hasieran harritu zen. Askok errezitaldia espero zuten. Lagunen arteko kontua izan zen; argazki erakusketa bat ikusten geundela nire olerkiak zintzilikatzea proposatu zidaten. Inoiz inork irakurriko ez zituen poemak zirelako jarri genion *Zaborte-giko Poemak* izenburua. Hemen poesia guti irakurtzen da; gizartearen ikuspegitik, gainera, okerrenetik okerrena hautatu dut, mutila izanda olerkigintzan aritzea ez da erraz ulertzen. Zergatik zintzilikatuak? Niretzat, olerkiak ere artelanak dira. Lagunek marko bereziak egiten lagundu zidaten, eta polita izan zen esperientzia.

■ Estilo librean idazten duzu edo errimak errespetatzen dituzu?

Estilo librea dut gustuko, erri-me jarraituz ezin dezaket idatzi nahi dudana, harresi bat dela uste dut. Poema mugatzen du errimak, siouxen hizkeraren an-

«Garai batean, olerkiak norbaitek irakurriko zuen beldurrez idazten nuen. Gaur egun, ordea, inongo lotsarik gabe, barnetik ateratzen zaidana idazten dut»

GAZTELUKO PLAZA
OPARITUA
2.076.
URTERARTE!!



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Eskolara itzulera

Balderdi Balderdi taldeak zioen bezala, irailarekin batera isildu dira hondartzako gramolak, eta nafarroko gure kostaldetik (ikaragarria da Hondarribian, Hendaian edo Donostian udan topatzen ahal den nafar pila) nahiz kanpokoetatik etxera, lanera bueltatzen hasiak gara. Udako lozorroan, egunkari mehar-berri eskasei begiratzea gogotzen ez zaigunez, isilean joan zaizkigu berri interesgari bezain larriak. Iruñeko Bideko Amaren ospitalean sei lagun hil dira legionella gaitzak jota. Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak, aldiz, akats bakarra sumatu du bere ospitalean: informazioa emateko orduan berandu ibili direla. Honelako adierazpenak neguaren erdian egin balitu, dimisioa aurkeztera behartua egonen zen (?), baina abuztu sargorian egin dituzte, inor ez da harritu ere egin. Gazteluko plazako aferan bezalaxe.

Azkenik, beraz, irailean sartuak gara —jertseak gaitu lehen hozkirritik gerizatzen—. Neska-mutikoei ere akautu zaizkie beraien opor luzeak —guretako, beheren— eta abudo hasiko dira *vueltas al cole* eta gisako kanpainak. Oporretatik etxera eta lanera bueltatzea gutti balitz, beti bezala, gurasoek milaka pezeta batzuk —euroetan, heldu den urtean kalkulatu dugu— xahutu beharko dituzte testu-liburu, koaderno, lapitz eta gisako lan-tresnetan.

Politikoak ere bueltatuak dira lanera. Leitzaldean uda mugitua izan da, baina herri horrek eta bere bizilagunek tamaina bereko erantzuna eman diote uztaileko gertakari larriari. Jose Javier Mujikaren heriotza eragin zuena bezalako atentaturik gehiago gerta ez dadin eta arazo politikoari irtenbidea ematen saiatzeko lehen aldiz elkar hartu zuten herriko udal talde guzietan. Nafarroako UPNk, espero bezala, ez zuen bat egin Leitzako batzordearekin. Atarrabian, bien bitartean, udal talde guzietan, Batasuna barne, elkartasuna adierazi diote dimisioa aurkeztu berria duen UPNko zinegotzi bati. UPN eta PSNko zinegotziak bizkartzainak eramanen dituzte, Aralar eta Batzarrek hauteskunde-inkestetan kontuan har ditzatela eskatu dute. Masailak ezarian, doaz zurbiltzen.

gure aukerak

MUSIKA

- **Zangoza:** Asteburu honetan, III. Jota Txapelketa jokatu dute, Galerian. Finalerdia gaur izanen da, 19:00etatik aurrera; eta finala, igandean, 20:30ean.
- **Iruñea:** Ermitagañako besten kariatara, Ekon taldearen kontzertua izanen da, gaur, 23:00etan, txosna gunean.
- **Uxue:** Samsara taldeak gaztetxean joko du, gaur, 00:30ean.
- **Sara:** Flitter taldeak plazan joko du, bihar, 23:30ean.
- **Erriberri:** Dj kontzertua egingen dute, gaur, gaueko hamabieta-tik aurrera, frontoian. Dj Frank TRAX, Dj Txus, Dj Thunder eta Dj Dona izanen dira.

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Kataluniako La Familia Ramirez y Boni taldeak *Tres mejor que dos* antzerki eta zirku ikuskizuna eskainiko du, gaur, 19:00etan, Erreniega parkean.
- **Zizur Nagusia:** Camaleo taldeak *Medusa* gaueko kale ikuskizuna eskainiko du, bihar, 22:00etan, Erreniega parkean.

ZINEMA

- **Ibiriku:** Bihar, larunbarekin, *Baloia* euskarazko filma pantailaratuko dute, 22:00etan, frontoian.

KIROLA

- **Belagoa:** Hilaren 16an, igandearrekin, V. Gazte Ibilaldia egingen dute Belagoan. Sei-zortzi orduko ibilaldian hiru tontor igoko dituzte: Kartxela (1.982 m.), Binbaleta (1.755 m.) eta Lakora (1.847 m.). Izena osteguna baino lehen eman behar da, Nafarroa Kirol Elkartearen (Jarauta, 78) edo 948-224324 telefonon. Izen ematearen truke (1.000 pezeta): Belagoara joateko autobusa, elastikoa, jatekoa eta

edatekoa ibilbidean, otordua aterpean.

EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA

- **Iruñerria:** Iruñerriko IKako euskaltegietan matrikulatzeko epea zabalik da dagoeneko: Arturo Campion, Barañain, Atarrabia, Mendillorri eta Ermitagaña.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Jaietako kartelen lehiaketako lanak hilaren 16a arte ikusten ahal dira, Kultur Etxean; lanegunetan, 19:00eta-

tik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

- **Burlata:** Nafarroan lan egiten duten prentsa argazkilarien lanak Joakin Azkarate karrakoko kultur aretoan ikusten ahal dira, hilaren 20a arte.
- **Iruñea:** Cristina Eskarai artistaren margolanak Gazteriarren Etxean dira ikusgai, hilaren 21a arte; astegunetan, 18:00etatik 20:30era, eta larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Zangoza:** Jaietako kartelen lehiaketako lanak hilaren 22a arte ikus daitezke, Kultur Etxean, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara.

- **Iruñea:** Maria Dolores Gil Bearen akuarelen erakusketa Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42) bisita daiteke, hilaren 29a arte.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertsopaperak eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo cultura@ayto-pamplona.es helbide elektronikoan.

JOXE LACALLE



'Ze urrun dagoen Kamerun...'

Itoizko urtegiaren kontrako kanpaldia bukatzeko, iragan igande eguerdian 300 bat lagun Iruñeko kartzelaren aitzinean elkartu ziren, Iñaki Garcia Koch solidario presoari elkartasuna adierazteko. Handik, Txistuen plazara joan ziren, Iruñea erdigunean dagoen enparantza posmoderno horretara. Hainbat gazte txistuetara igo ziren behean zeudenean esku orriak banatzen zituzten bitartean. Harik eta Espainiako Polizia agertu zen arte. Iruñean aniztatan gertatzen den gisara, kalean bildutakoak kolpeka sakabanatu zituzten. Zarama taldeak kantatu zuen: Lehenago eskolan / kolpeka beti / Gero hazi aroan / kolpeka beti / Gero ejerzitoan / kolpeka beti / Eta orain kalean / kolpeka beti. Bitartean, Iñaki Garcia Koch kartzelako patioan zen, bakarrik, pankarta eskuetan. Eta, bai, bai, Zaramak kantatu zuen Iñaki, ze urrun dagoen Kamerun zioen hura ere.